

# txintxarri



## Karmenetan, jai giroa

Oriako auzotarrek Karmengo Ama Birjinaren omenezko festak ospatu dituzte goizetik iluntzera / 6-7

TXINTXARRI

## Uztailean zehar, abenturaz blai

Hilabete zirraragarria bizitzen ari dira Ttakun Kultur Elkartearen udako txokoetako eta kanpaldietako haurrak / 8-9

**Espainiako hauteskudeen harira, ekimenak egin dituzte herriko udal taldeek / 2**

**Uda Lasarte-Orian pasako duten haur sahararrei harrera egin diete udal ordezkariak / 3**

**Santa Ana egunerako motorrak berotze aldera, artisau azoka eta pintxo bidea antolatu dituzte / 4**

**Kinada taldeak bigarren estudioko lana kaleratu du, 'Etsaiarekin dantzan' izeneko diskoa / 5**

**Ibai Makazaga eta Maria Ordoñez garaile izan dira Lasarte-Oriako Mendi Lasterketan / 10**

**Donostia Arraun Lagunak-ek garaipen berria eskuratu du Bilbon eta lider mantentzen da / 11**

### MERKEALDIA

# 2MÓ 79€

LEHEN 99€

## GRADUATUAK

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

R.P.S. 91/20



Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE-ORIA**



eskatu  
hitzordua  
online

## MULTIÓPTICAS

8. urteurrena

# Ekitaldi politikoa egin du PSE-EEK herriko etxean

Agustin Valdivia alkatearekin batera, Rafaela Romero PSE-EEren Kongresuko diputatugaiak eta Eneko Andueza PSE-EEko Idazkari Nagusiak parte hartu dute. Herriko egoitzan 60 bat lagun bertaratu dira hiruek esan beharrekoa entzuteko

## Maitane Aldanondo

Elkarrekin sartu ziren aretora alderdiko ordezkariak, eta talde argazkia eginda, lehen ilaran eseri ziren. Aurrealdeko aulkietan jada lekua hartuta zeuden Lasarte-Oriako PSE-EEko zinegotziak eta Gipuzkoako zenbait ordezkari. Hitza hartzen lehena alkatea izan zen eta pentsioak izan zituen hizpide, eskertza eta agurren ondoren. Agerraldia hasi zuen albiste izan zen 82 urteko estatubatuar batean historia kontatzen, hark lanean jarraitzen baitzuen eta diru bilketa bati esker lortu baitzuen erretiratzea. "Zentzuzko adin batean erretiratzea bermatzen ez duen estatu bat ez da duina, ez da bere herritarrez kezkatzen eta egoera izugarriak onartzen ditu. Ez, hori ez da sozialistok babesten dugun eredu". Hortaz, erretiro adina 70 urtera arte edo harago atzeratu nahi duen eskuinaren "eredu bidegabe eta insolitarioa" saihesteko aukera



Eneko Andueza, Rafaela Romero eta Agustin Valdivia ostiraleko ekitaldian. TXINTXARRI

bakarra sozialistei botoa ematea dela nabarmendu zuen.

Halaber, murrizketei aurre egin eta pentsio txikienak handitzeko hartutako neurriak ere errepasatu zituen, pentsio pribatuak "osagarriak" bakarrik

izan behar direla berretsiz eta egungo sistema "jasangarriagoa, duinagoa, berme gehiagokoa, berdinzale eta inklusiboagoa" dela gehituta. Hala, pentsioen bideragarritasuna bermatzeko, jubilatze adina atzeratu beha-

rean, kalitatezko enplegu gehiago sortzearen alde egin zuen. Baita bizitza duina bermatzeko duten pentsioen alde ere, eta zehaztu zuen PSE Espainiako gobernura iristean 1.090 jasotzen zituen pentsiodunak, egun, 1.367 jasotzen dituela; PPrek erreformak indarrean jarraituko balu, berriz, 1.104 ziratekeen.

Jarraian, Romero aurkeztu zuen Valdiviak: "Pedro Sanchez bezala, ez dago bakarrik. Aldea iraultze itxura du kanpainak, Rafi. Sinetsita nago hilaren 23an ustekabea izango dela. Baina horretarako beharrezkoa da etxean inor ez gelditzea, eta ukabila eta arrosa dituen boto paperez hautetsontziak betetzea", adierazi zuen bi botoen gutunazalak erakutsiz.

## Hauteskunde "erabakigarriak"

Txaloen ondoren, Romeroren txanda heldu zen. Une erabakigarria gerturatzen ari da, eta galtzeko arriskua egon arren, aurreikusi zuen "garaipena aurrerakoa" izango dela. Sozialisten gobernua euskaldunen eskubideentzat onuragarria izaten direla azaldu zuen, PSE-EErekin Euskadik eta Gipuzkoak "beti irabazi" izan dutela. Euren konfiantza eskatu zien herritarrei eta, hizlari guztiek behin baino gehiagotan errepikatu bezala, bozkatzera joateko garrantzia azpimarratu zuen, hauteskunde hauetan bereziki, "erabakigarriak baitira PP-VOXen mehatxutik

Espainia demokratikoa eta eskubideen Euskadi salbatzeko". Ildo beretik jo zuen euskaraz egindako azken hitzetan: "Datorren uztailaren 23an alderdi sozialistaren botoez bete behar dira hautetsontziak, demokrazia arriskuan dagoelako. Feijoo geldiarazteko boto erabilgarri bakarra PSOE da".

Azkenik, Andueza jarri zen atril atzean. Sanchezen gobernuak legealdian izandako zailtasunak zerrendatu zituen, eta zailtasunak zailtasun, aurrera eramandakoa goraiatu zuen. Egindakoaz gain, ordea, egiteko dutenari garrantzia ere eman zion: genero indarkeriaren aurkako ituna berrestea, prebentzioa eta artatzea hobetuz; hogeitaz guraso baimenak, botere parekidetasuna, trantsizioa ekologikoa edo uraren pribatizazioa saihesteko legea, besteak beste. Horregatik, beste bi kideek bezala, bozkatzera joateko eta PSE-EE aukeratzeko eskatu zien herritarrei. "Aurrerakotasuna nahi baduzue, alderdi sozialista da Euskadiren botoa".

Txalo artean, hiru hizlariek eta alderdiko beste kide batzuek agurtu zituzten bertaratutakoak.

## "PP-VOX-EN MEHATXUARI" AURRE EGITEKO SOZIALISTEI BOTOA EMATEKO ESKATU DUTE

## Azokan ibili dira boto bila

Espainiako Gorteetarako bozen atarian boto bila ibili dira herriko zenbait alderdi, Andatza plazako azokan: EAJ, EH Bildu eta PSE-EE, hain zuzen ere. Proposamenen programak eta beste gauza batzuk banatu dituzte, larrosak eta goxokiak, adibidez. Hauteskunde horiek etzi izango dira, hilak 23, igandearekin.





Saharako haurrak, euren harrera familiak eta udal ordezkariak udalbatza aretoan. TXINTXARRI

# Haur sahararrei harrera beroa egin die udalak

Hiru gaztetxok pasako dute uda sasoiak Lasarte-Orian: Hassana-k, Abdi-k eta Jalil-ek; azken hau ez da Euskal Herrira iritsi oraindik. Horiekin batera, laugarren bat ere izan da udalak egindako harreraren: Sara. Azken horrek Usurbilgo familia batekin egingo du egonaldia

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Udala ordezkariak (PPkoa ezik gainerako alderdietako ordezkariak egon dira) harrera egin diete berriki udako bi hilabete Euskal Herrian igaroko dituzten haur sahararrei; Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeko ordezkari Tomas Arruti ere bertan izan da. Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Lourdes Acevedok hartu du hitza gaztetxoei ongietorria emateko; poza agertu die Lasarte-Oriara etorri direlako. Gaztelaniaz hitz egin badu ere, haur sahararrek izan dute mezua jasotzeko aukera Haron Boutalha Mohamed-Lamine-ri esker; Alegin bizi den gazte sahararra da, eta haur sahararren hezitzailea ere bai, Ttakun Kultur Elkarte aurrera eramaten ari den Udako Txokoetan.

Hitzartzea amaituta, opari bana jaso dute hiru sahararrek (laugarrena ez da Euskal Herrira heldu oraindik) Agustín Valdivia alkatearen eskutik, eta Ttakun Kultur Elkarte ordezkariak ere euren opariaren entrega egin diete. Azken horiek balioan jarri dute hezitzaile sahararren lana, eta pozik agertu dira berriz ere aurrez aipatutako programari esker haur sahararrek eurekin daudelako: "Aukera interesgarria da eurentzat, baita haur lasarteoritarrentzat ere".

Talde argazkia aterata amaitu dute hitzordua.

## Ongietorria, Pasai Donibanen

Larunbat honetan, berriz, hilak 22 Euskal Herrira etorri diren haur sahararrei ongietorri festa egingo diete Pasai Donibanen. Egun osoko egitaraua prestatu dute arduradunek, eta elkar ezagutzeaz gain, egun eder bat pasatzeko parada izango dute ziur.



NEURE KABUZ  
MAITANE REBE

## 23-J

"Todos los moros vienen a robar". Bai, hori da aste honetan entzun eta pentsatzera eraman nauen esaldia. Komentarioa lekuz kanpo dagoela argi dago, Espainiar herrialdean dauden jarrera arrazistak azalean jartzen baititu. Zergatik pentsatu ohi da etorkinak direla lapurtzen dutenak, errealitatean lapurrak politikariak direnean.

Ez gaitezen engainatu, alderdi politikoei lotsarik gabe lapurtzen dute. Honekin ez dut adierazi nahi politikari onestik ez dagoela, eta batez ere, ez dut iritzi zutabe hau alderdi politikoko batera lotu nahi. Baina argi dago ustelkeria Espainiaren marka dela, horrela ezagutzen dutela. Hemen politikariak gezurra esan, lapurtu eta edozein motatako arazoak izan ditzakete. Eta zer egiten du herriak? Lapurrei bozkatzeko jarraitu.

Igande honetan, hilaren 23an, hauteskunde orokorrak deitu dira. Konstituzioak dioen bezala, "herritarrek gai publikoetan parte hartzeko eskubidea dute, zuzenean edo ordezkarien bidez, eta horiek askatasunez hautatuko dira aldezkatik hauteskundeetan, sufragio unibertsalaren bitartez". Alde batetik, argitu beharra dago hau guztiz egiazkoa ez dela, kasu askotan eskubide hau urratua izaten baita. Baina beste aldetik, itzaropena ia galdua izan arren, boto eskubidea dugun bitartean, jarraitu dezagun gure eskubideak lantzen eta saiatu gaitezen gure ondorengoei mundu hobeto bat uzten.

Alderdi politikoei aspaldi utzi diote herritarrek ordezkatzeari. Haiekiko sinesgarritasun ezak geroz eta urrunago kokatzen ditu herritarrek, eta urruntasun hori kezagarria da. Gaur egungo ustelkeria politikoen sentsazioak mesfidantza eta haserrea eragiten ditu, alderdien eta gizartearen arteko banantzea zabalduz. Herritar asko bahituta sentitzen dira beren eskubideen erabileran, erakundeek boterea monopolizatzen dutenean, botere legegilea zein gobernu maila guztiak kontrolatuz, baita Estatuko erakunde gorenaren osakeria ere.

Egoera honek herritarrek nekera eraman ditu, eta geroz eta ohikoagoa da gure boto eskubidea ez erabiltzea. Datozen hauteskundeetan lortzen den abstentzioa handia bada, mezua argia da: alderdi politikoei proposatzen dutena ez ditu herritarrek konbentzitzen. Hala ere, ez bozkatzeko emaitzetan eragin zuzena ez izan arren, kasu gehienetan, abstentzioek, boto baliogabeek edo boto zuriek, gehiengo lortzen duten alderdiei mesede egiten diete. Izan ere, gutxiengoek erabaki hartzeetan oihartzuna izateko adina boto lortzeko dituzten aukerak murrizten dituzte. Beraz, igande honetan ondo erabil dezagun boto eskubidea.

txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,  
doan eta euskaraz

**Zure iragarkia jarri nahi duzu?  
Jar zaitez gurekin harremanetan!**

**Deskontu bereziak herrikoentzat!**

ESKATU TARIFAK: [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) • 646 82 44 66

# Motorrak berotzeko, pintxoak eta azoka

Santa Ana egunaren bezperetan, pintxo ibilbide eta artisau azoka bana antolatu ditu udalak, Aterpea elkartearekin eta Servicios Globales Araba enpresarekin elkarlanean, hurrenez hurren. Bi jarduerak etzi aurrera eramango dituzte, hilak 23, igandez

## Txintxarri

Santa Ana egunerako (hilak 26, asteazkena) motorrak berotze aldera, hiru egun lehenagorako plan polita proposatu du Lasarte-Oriako Udalak, zenbait eragileekin elkarlanean: Okendo plaza eta inguruetan jarriko duten 38. artisau azokara joatea, eta, lehenago edo ondoren, pintxo goxo bat edo batzuk jatea, gehienez ere bost, beste hainbeste tabernatan.

Buenetxea, Hiru Aldeta, Plan B, Arima eta Herriko Etxea izango dira aurtengo Santa Ana-ko pintxo ibilbidean parte hartuko duten ostalaritza establezimenduak. Urtero legez, Aterpea merkatarien elkarteak antolatu du ekimena, udalarekin elkarlanean. Eragileko lehendakari Miguel Angel Prietok zehaztu duenez, sukaldariak bakailaia eta piperra erabili beharko dituzte elaborazioetan, eta, hortik aurrera, askatasuna izango dute euren ukitu pertsonala emateko. Pintxo horiek dastatu nahi dituzten bezeroek 2,50 euro ordaindu beharko dituzte jaki bakoitzeko, taberna bakoitzaren ordutegiaren barruan.

Udaleko Sozioekonomia buru Nuria Fernandezek lasarteoriar guztiak animatu ditu jarduerara horretan parte hartzera.



Aterpeko eta udaleko ordezkariak, Hiru Aldeta tabernan. TXINTXARRI

Halaber, eskerrak eman dizkio Aterpeari horrelako ekimenak aurrera eramateagatik, eta, erdi txantxetan, honakoa gehitu: "Pintxoak jatea plan ona izan daiteke botoa ematera joan eta gero egiteko".

## Artisau azoka

Igande honetan, hilak 23 Okendo plazan aurtengo 38. Santa Ana Artisau Azoka izango da. 10:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara arteko tartea izango dute herritarrek salmenta postuetara joan eta salgaiak eroste-

ko. Hala azaldu dute berriki Kulturako zinegotzi Anne Ugarteburuk, eta Servicios Globales Araba enpresako arduradun Asier Velascok.

Elikagaiak eta bestelako produktua erosteko aukera izango da; hori bai, denak artisauak izango dira. Guztira, 22 postu izango direla iragarri dute, eta horiekin batera, aisialdiko tailerretan landutakoa ikusteko aukera ere izango dute bertaritzen direnek. Horrez gain, haurrentzako tailerrak ere izango direla azaldu dute antolatzaileek.



Ekainaren 28ko sexu askapenerako manifestazioa. TXINTXARRI

## Urtero erasoak salatu behar izateaz "nazkatuta" daude

Sorgin Jaiak-eko kideek "elkarren artean saretzea" ahalbidetuko duten "espazio seguruak" sortzen segiko dute

## Txintxarri

Sorgin Jaiak-eko kideek, ohar bidez, salatu dute aurtengo festetan ere erasoak pairatu dituztela "emakume, bollerak, trans, eta, oro har, sistema zishetero-patriarkalak zapaltzen eta baztertzen dituztenek". Horrekin batera, nabarmendu dute "kokoteraino" daudela kalean beldurra pasa eta festak eta parrandak nahi dituzten moduan ez gozatzeaz; horren aurrean, irmo adierazi dute erratzak eskuan hartuta "gorputzak, plazerak, ahotsak eta elkar zaintza erdiguanean jarriko dituen bizimodu baten alde" borrokatzen jarraituko dutela, "elkarren artean saretzea ahalbidetuko duten espazio seguruak sortuz".

Tamalez, ez da horrelako adierazpen bat egin behar izan duten lehen aldia. Are, oharra kalera-tzearekin batera argi utzi dute "nazkatuta" daudela "urtero"

horrelako adierazpenak egin behar izateaz. Gauza gehiagoz ere badaude kokoteraino: "Nazkatuta gaude gizonek gure espazioak okupatzeaz. Nazkatuta gaude jaiak eta parrandak nahi ditugun moduan ez gozatzeaz. Nazkatuta gaude gure gorputzak objektu gisa irakurriak izateaz. Nazkatuta gaude patriarkala den gizarte antolaketa honek, indarkeria matxista bizitzako eremu guztietan egotea ahalbidetzen duelako, izan erakundetan, kalean eta baita hurbileko ingurunean ere".

Sorgin Jaiak osatzen duten herritar guztien izenean, elkartasuna adierazi dute festetan zehar erasotua sentitu den edonori. Era berean, nabarmendu dute euskara, herritarren parte hartzea, feminismoa, birziklapena eta kontsumo eredu jasangarriak bezalako osagaiekin edabeak prestatzen jarraituko dutela.

## Felix eta Ulises ezezagunak elkartu ditu itsasoak

'Agurea, urpekaria eta itsasoa' antzezlanaren emanaldia egin du Hortzmuga Teatroa konpainiak

## Txintxarri

Okendo plazara plastikoz egindako uharte eta pertsonaiak ekarri ditu Hortzmuga antzerki taldeak. *Kale antzerkia bultzatuz* egitasmoaren saio berri bat aurrera eman dute, eta ingurume-

narekiko kezka eta sare sozialen gehiegizko erabilera ardatz dituen ikuskizuna ikusteko aukera izan dute lasarteoriarrek: *Agurea, urpekaria eta itsasoa*. Felix urpekariak itsasoko erronka zentzugabenak gauzatzeagatik ezaguna

ez da sare sozialez haratago ikusteko gai. Ulises agureak, berriz, urteak daramatza itsasora botatako hondakinak biltzen eta bigarren bizitza bat ematen. Bi pertsonaia berezi horiek elkarren aurka jarriko ditu egoerak hasieran, baina gutxika elkar ulertzen hasiko dira.

Arestian aipatutako ziklo horren hurrengo emanaldia gaur izango da, ostirala, hilak 21. *Nexo* ikuskizuna emango du Jon Zabal magoak, Okendon, 19:00etan.



Ulises agurea eta Felix urpekaria, emanaldian zehar. TXINTXARRI



Kinadako laukoteak dena eman zuen Sorgin Jaietako kontzertuan. TXINTXARRI

# "Aurrekoa baino gogorragoa da disko hau"

JAGOBA MENDIZABAL KINADA TALDEKO ABESLARIA

Kinada talde lasarteoriatarreko abeslariarekin hitz egin du TXINTXARRI-k, laukoteak kaleratu berri duen 'Etsaiarekin dantzan' diskoari buruz. Estudioko bigarren lana da

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Estimuluekin egin beharreko bidaia bat proposatu ziguten aurrena, eta norberak bere barrurako egiteko ariketa bat oraingoan. Kinada laukote lasarteoriatarrek bigarren estudioko lana kaleratu berri du, *Etsaiarekin dantzan*, ordu erdi baino zertxobait azkarrago eta abiada bizian entzuteko zortzi abestiz osatutako diskoa. Taldeko abeslari Jagoba Mendizabalek eman dizkio TXINTXARRI-ri album horren nondik norakoak.

**Estudioan landu eta ondutako diskoa herrian bertan defendatu zenuten zuzenean aurrenekoz, Sorgin Jaietan eman zenuten kontzertuan. Zer moduz joan zen?**

Disko hau bi zatitan grabatu dugu: lehenengoa, lau abesti, 2022. urte amaieran, eta bigarrena, Aste Santuen bueltan. Kontuan izanda entseatzeko denbora gutxi izan dugula, gustura geratu gara. Iazko arantza-txoa atera dugu, festetan jo genuelako baita ere, baina guztia handi geratu zitzaigun. Pixkanaka, eboluzionatzen ari gara talde bezala, ikasten, zuzeneko kontzertuetan eta beste aspektu askotan: *riders*-ak egiten [musi-

karien behar teknikoaren dokumentu moduko bat, baldintza onenetan jotzeko aukera izan dezaten] teknikariekin konfiantza eta argi hitz egiten, eta abar. **Eboluzionatzen ari zarete aipatu duzu. Kaleratu berri duzuen diskoa horren isla da? Zeintzuk dira ezauzgarri nagusiak?**

Aurrenekoa, *Estimuluen bidaia*, oro har, sinpleagoa zen; abestien barruko erritmo aldaketetan, adibidez. *Etsaiarekin dantzan* gogorragoa da musikalki, instrumentuei eta koruei dagokienez. Oraindik, zenbaitetan, kosta egiten zait ahotsa gogortzea eta *popero* deitzen didate (barreak). **Estilo desberdinekin jolastu duzue?** Esango nuke ahotsean metal kutsu bat duela *Su etena* abestiak, eta, *Etsaiarekin dantzan* kantuak, rock and roll ukitu bat. Beraz, bai, ari gara nahasketa horiekin jolasten, zati goxoagoak eta gogorragoak tartekatzen. Trantsizio horiek asko gustatzen zaizkit niri. **Letrek ere izan dute bilakaera?**

Ez naiz ikaragarri pila irakurtzen duen pertsona bat, baina hasi naiz poesia liburuak-eta begiratzeko, gauzak kontatzerakoan baliabide gehiago izateko, hiztegi aberatsagoa; den-dena ez

dugu literalki kontatu nahi. Abesti batzuk deskriptiboak dira, eta besteak, abstraktuagoak. **Zergatik jarri diozue izenburu hori diskoari? Nor edo nortzuekin ari zarete dantzan?**

Gogoratzen naiz inprobisazio edo *jam session* moduko entsegu batean, gustatu zitzaigula abesti baten soinua; ez dakit nork bota zuen kontzeptua, baina erabaki genuen bigarren disko bat egiten bagenuen *Etsaiarekin dantzan* izango zela izenburua. Talde askok lan bateko abestiek egiten duten bidearen arabera titulatzeko dute; guk, oraingoan, alderantziz.

Horri buruz pentsatu eta filosofatu dugu: nortzuk dira gure etsaiak, norekin ari gara dantzan? Ba egunerokotasunean izan ditzakegun arazo, mamu, oztopo eta bestelakoekin. Gutako bakoitzak ditu bereak, diskoa entzuterakoan bere egoera pertsonalera eramango du entzuleak. *Etsaiarekin dantzan*-en, adibidez, iraganeko bizipen txarrez abesten dugu; *Esklabu* eta *Not found* kantuak, bestalde, gaur egungo gizarte ereduari buruzkoak dira, eta, bereziki, langileria-erantzulari buruzkoak.

**Abesti horien guztien aurretik, '20160' izeneko intro bitxia; diskoaren sarrera. Lasarte-Oriako posta kodearen zenbakia da... eta zer gehiago?**

Sarrerako abestia izan zen azkenena. Islatu dugu gure herriarekiko dugun harreman bitxia: batetik, harro sentitzen gara lasarteoriatarrek izateaz, eta, bestetik, amorrua ematen digu gauza askok nola funtzionatzen duten. Hortik dator Sorgin Jaietako kontzertuko keinu ironikoa: hiru taldekidek *I love LO* jartzen zuen kamisetekin jo zuten. Horrez gain, kanpora goazenean, jotzera edo parrandara, gustatzen zaigu esatea nongoak garen, ereserki eta guzti. Beti izan dugu nolabaiteko fetitxe bat horrekin. **Lehen esan duzunez, 'Etsaiarekin dantzan'-en lehen zatia 2022 amaierarako prest zenuten. Noiz erabaki zenuten bigarren diskoaren bila joatea?**

Naturalki atera zitzaigun. Iazko uda eta gero jarri ginen abesti berriekin serioago. Esango nuke presioaren arabera funtzionatu izan dugula, Jurgirengana [Taboada] ongi landutako zati bat behintzat eraman nahi genuelako.

**Jurgi Taboada aipatu duzu oraintxe, Ozen Estudioaren jabea. Disko hau ere berarekin grabatu duzue, gusura ari zareten seinale.**

*Makina* hutsa da, oso pertsona naturala. Erraz lan egiten dugu berarekin, are errazago elkarren arteko konfiantza areagotu dugunean. Gertukoa da, agenda kontuengatik estu bazabiltza beti ateratzen du tarte bat zurekin egoteko, ateak ez dizkizu inoiz ixten. Gozamen hutsa da hori. Lehen diskoarekin bezala, landuta genuena eraman eta ekarpen ugari egin ditu: zer aldatu edo moldatu, nola hobetu, eta abar.

**Diskoaren azala, berriz, beste herritar batekin elkarlanean ondu duzue, Sara Etxeberria 'Basoko Maxuxta'-rekin hain zuzen.**

Artista hutsa da Sara, azalaz gain beste elementu grafiko guztiak berak egin ditu: ikaragarri gustatzen zait, adibidez, letren liburuxkaren fondoko kea. Berarekin ere oso erraz egin dugu lan, askatasun osoa izan du guk emandako zenbait irizpiderekin sortzeko: akelarrea, sua, sugeak, kateak, hostoak...

**'Etsaiarekin dantzan' kaleratuta, zuzeneko kontzertuen ordua da orain, ezta? Nola duzue agenda?**



Diskoaren azala. KINADA

## Plataforma guztietan entzungai

Aurrerapen kantu (*Su etena*) eta zuzeneko kontzertu banaren ostean, Kinada taldeak plataforma digital guztietan jarri du entzungai bere bigarren estudioko lana, *Etsaiarekin dantzan*. Azpian duzuen QR kode hori sakelako telefonoarekin eskaneatuz gero, bata bestearen atzetik entzungo dituzue abestiak.

Bestalde, taldekideek gogorarazi dute diskoa eta kamiseta Agora nahiz Insausti tabernetan eros ditzaketela herritarrek, edota Kinadaren Instagram kontuan (@kinada\_taldea).



Udan, gure agendengatik, emandako gutxi izango ditugu; proposamen batzuk ezin izan ditugu onartu. Irailetik hasi eta Eguberrietara arte gehiago lotuko ditugu. Horietako bat, agian, En Diskordia talde bartzelonarrarekin batera izango da, ea elkarrekin aritzeko aukera dugun. **'Ez dago bi hiru gabe' dio esaerak... Beste disko bat bai, gutxienez?** Nik uste dut hirugarrena eroriko dela, ziur. Hortik aurrera, auskalo. Motibatuta gaude sortzen jarraitzeko.

# Jai giroa, goizetik iluntzera

## Karmengo jaiak ospatu dituzte Oriako auzotarrek



Xumela koruko lagunek girotu zuten eguerdia. Emanaldiaren ostean, talde argazkia egin zuten. TXINTXARRI



Herritar ugari joan ziren Karmengo Ama kaperara, mezara. TXINTXARRI



Herriko txistularien taldeak esnatu zuen auzoa, dianaren bitartez. TXINTXARRI



Haurrek primeran pasa zuten haientzat prestatutako tailer eta jolasekin. TXINTXARRI



Auzoan barrena ibili ostean, Brunet-Enea parkean talde argazkia atera zuten Sorgin Dantzan parte hartu zuten



Goizeko jarduera guztien ondoren, luntx goxo bat dastatuta indarrak hartu zituzten. TXINTXARRI



LOZET elkartearen buruhandiek ez zituzten haurrak bakean utzi. TXINTXARRI



dantzari eta txistulariek. Emanaldia ikustera joandako ikus-entzule ugari haiekin dantzan amaitu zuten. TXINTXARRI

Txistularien dianak esnatu zuen auzoa eta jaiari ekitekoak zirela ohartarazi zien Oriako bizilagunei. Txartel hoteletik abiatu ziren musikariak, bertan pieza pare bat jo ondoren, antolakuntzako lau kide lagun zituztela. Aldi berean, kapera ondoan, haurren eskulan tailerrerako prestaketa lanetan ari ziren. Koadro bat margotzeko aukera izan zuten irudi, hizki edo nahi zutena bertan marraztu eta koloreztatzeko. Beso, arropa eta mahaiaik ere nahi gabe kolorez zikindu ziren, baina hori ez zen arazo izan.

LOZETeko buruhandi eta erraldoiak agertu behar ziren orduan, Xumela korua izan zen protagonista. Aurten, mezan abestu beharrean, elizkizunaren aurretik egin zuten saioa. Atari aurrealdean abestu zituzten kanta ezagunak mezaren garaia heldu zen arte. Hamaiketako egiten gelditu ziren koruko kideak, haurrek eman zizkieten gozokiak jan eta buruhandi eta erraldoiekin korrika egin zuten bitartean. Felix Garitanok eman zuen meza. Hiru ordu laurden geroago irten zirenean, luntxa ia prest zuten. Azken minutuak eta mokadutxoa, txandaka girotu zituzten txistulariek eta Xumelako lagunek.

Egun bereziki eguzkitsua eta berorik egin ez bazuen ere, Brunet-Eneako lorategian gustura busti ziren haurrak ur globo eta pistolekin borrokan. Askari goxoa banatu zieten eta puzgarriak ere izan zituzten saltoka ibiltzeko edo aurpegia margotzeko aukera. Jatetxe aurrean punteria proban jartzen aritu ziren toka txapelketan, burdinari jo nahian. Horretan ari zirela, kapera ondoan Sorgin Dantzarako dena prestatzen ari ziren. Txistulariekin batera, prestatutako dantzak egin zituzten, lehenik han, eta kalejiran joan ziren ondoren, lorategiraino. Han zeuden ia denen begiradapean berriro egin zuten emanaldia, eta nahi izan zutenekin dantzan amaitu zuten. Azken txanpan, zunba eta bodyconbat erakustaldia eta dantzan jarraitu nahi izan zutenentzat Ibai Berriak taldearen saioa egin zituzten.



Toka txapelketa jokatu bitartean, punteria fina dutela erakutsi zuten partaideek. TXINTXARRI



Bazkalostean, ur jolasetan dibertitu ziren gaztetxoak. TXINTXARRI

# Abenturaz eta bizipenez blai

## Udako txokoak eta kanpaldiak

Uztaila hilabete zoragarria izan ohi da herriko ume askorentzat, Ttakun Kultur Elkarteak antolatzen dituen udako txoko eta kanpaldiei esker; euskara ardatz hartuta, aisialdi eskaintza paregabea prestatu du aurten ere. Programa batean zein bestean parte hartzen duten gaztetxoak milaka abentura bizitzen ari dira begiraleekin batera: txokoetako kideek, adibidez, Iruñeko festa handiak, sanferminak ospatu dituzte; zirkuan girotutako desfile koloretsu bat egin dute; Atsokabar egoitzako egoiliarrek bisitatu dituzte Porrotx pailazoekin batera; ur jolasak egin dituzte; eta abar. Azken egun ezin dibertigarriagoak dituzte aurretik, hilaren 28an aurtengo esperientzia festa erraldoi batekin itxi aurretik.

Txokoetako lagunak gure herrian bertan ari dira aipatutako jarduera horiek guztiak aurrera eramaten. Bitartean, kanpaldietara animatu direnak Euskal Herriko txoko ugari ezagutzen ari dira: Albeniz, Atxondo, Donemiliaga eta Loiola, hain zuzen ere. Bidali dizkiguten argazkiak ikusita, nabaritzen da aspertzeko denborarik ez dutela! Txango, jolas, tailer eta gaubela, ez ahazteko moduko hilabetea bizitzen ari dira horiek ere.



Belaunaldi arteko harremanak sustatu asmoz, Atsokabarreko egoiliarrekin elkartu dira



Hilaren 6an, bezperan, sanferminak ospatu zituzten txokoetako txikiek. TXINTXARRI



Beroketa ariketen ostean, zezenen aurrean lasterka egin zuten gaztetxoek. TXINTXARRI



Zirkuan girotutako desfile koloretsua egin zuten hilaren 14an. TXINTXARRI





txokoetako haurrak. TXINTXARRI



Porrotx pailazoarekin ederki pasa dute Ttakun KEren Udako Txokoetako haurrek eta Atsokabarreko egoiliarrek. TXINTXARRI



Donemiliagako txandako kuadrilla hau, kamiseta tintatu berriak soinean. TXINTXARRI



Esaten dutenez, lokatza ona omen da larruzalarentzat! TXINTXARRI



Gaztetxo talde bat, postre goxo bat prestatzen. TXINTXARRI



Atxondoko txandara joan den kuadrilla, mendi ibilaldi bati ekin aurretik. TXINTXARRI



Sarituek, antolatzaileek eta udal ordezkariak talde argazkia atera zuten. ISAAC FARRE RICO



Irteera momentuan, lehen postuetan izan zen Ibai Makazaga. ISAAC FARRE RICO

# Makazaga eta Ordoñez, garaile

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteak antolatutako Mendi Lasterketan 138 parte hartzaile izan dira lehian. Jon Presa eta Irati Urruzola izan dira lehen herritarrak eta sari nagusiaz gain, Buruntza mendiko saria ere eskuratu du Ibai Makazagak

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Mendi Lasterketa lehiatu zuten hilaren 16an. Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteak (LOTME) antolatutako probak 140 bat korrikalari bildu zituen Okendo plazan. LOTMEko hainbat kideez gain, herritar ugari izan ziren lasterketa egitera animatu zirenak. Urduritasuna nabari zen bai parte hartzaileengan, baita antolatzaileengan ere. Eguraldia alde zuten eta lasterketa ere arazorik gabe gaitziteza espero zuten guztiek.

Irteera eman eta lehen postuetan ikusi ahal izan genituen, besteak beste, gerora garaile izango zen Ibai Makazaga edo Jon Presa eta David Cordero herritarrak.

Buruntzako igoeran Makazagak aldea ireki zuen eta lehena iritsi zen kontrolera. 48 segundo geroago iritsi zen Oier Zubeldia

amezketarra. Jaisterakoan ere azkar ibili zen oriotarra eta lehen postua eskuratu zuen helmugan. Bigarren postuan aldaketa egon zen, ordea. Zubeldia ez zen fin ibili jaitzieran eta hiru korrikalarik pasa zuten: Ander Amonarriz, Beñat Bereziartu eta Unai Fernandez. Lehena izan zen bigarren helmugan.

Maria Ordoñez iruindarra ere nagusi izan zen emakumezkoen mailan. Hasieratik buruan jarri zen, Buruntzan ia lau minutuko aldea atera zion Rebeca Mariño baztandarrari eta helmugan ere berretsi zuen lehen postua. Lehen herritarrak Jon Presa eta Irati Urruzola izan ziren.

## Eskertza boluntarioei

LOTMEko kideek eskerrak eman nahi dizkiete boluntario lana egiten egon ziren bazkide eta lagun guztiei.

## Podium ezberdinak

### Gizonezkoen maila

- 1.- Ibai Makazaga
- 2.- Ander Amonarriz
- 3.- Beñat Bereziartu

### Emakumezkoen maila

- 1.- Maria Ordoñez
- 2.- Rebeca Mariño
- 3.- Erika Alvarez

### Lehen herritarrak

Gizona - Jon Presa  
Emakumea - Irati Urruzola

### Buruntzako saria

Ibai Makazaga



Jon Presa izan zen helmuga igaro zuen lehen herritarra. ISAAC FARRE RICO



LOTMEko antolatzaileak eta boluntarioak mahai inguruan bildu ziren amaitzean. LOTME

# Donostia Arraun Lagunak, Bilbon irabazle

Bilboko V. Bandera eskuratu du Lugañenek. Orion bigarren izan da. Emaitzei esker, Euskotren Ligako lehen postua mantentzen du. Hondarribia Bertako Igozailuak laugarren tokian amaitu ditu bi jardunaldiak eta Ligan bosgarren dago

## Txintxarri

Hitzordu bikoitza izan zuten hilaren 15ean eta 16an herriko arraunlariek. Bizkaian eta Orion lehiatu ziren guztiak. Lehen jardunaldian, Euskotren Ligako traineruak Bilbon izan ziren eta KAE 2 mailako Orion; bigarren jardunaldian, aldiz, kokalekuak aldatu zituzten.

Euskotren Ligako lehen hitzorduan Aiora Belartietak eta Donostia Arraun Lagunak-ek V. Bilboko bandera eskuratu eta euren esku zegoen estropada eremuko marka berria ezarri zuten. Hondarribia Bertako igozgailuak eta Intza Fernandez, aldiz, Tolosaldea gainditu eta laugarren izan ziren

Erlojupeko modura egin zen proban, bai Ama Guadalupekoa baita Lugañene ere euren txandako azkenak lehiatu ziren. Berdeak 10.43,26ko denborarekin lehen txandako onenak izan ziren eta ehunekoengatik laugarren postua eskuratu zuten



Donostia Arraun Lagunak-eko eskifaia, garaipena ospatzen. EUSKOTREN LIGA / A. ARRIZABALAGA

jardunaldian. Donostia Arraun Lagunak-ek, ederki jardunez, probako marka ondu zuen, 10.24,20, eta bandera eraman zuen.

Hilaren 16an, Orion, Orioko 23. Emakumezkoen Estropada

- Orio Kanpina XI. Bandera jokatuko zuten. Aurreko jardunaldiko emaitza kontuan izanik, lehenengoz herritarren bi eskifaiek bat egin zuten bigarren txandan; eurekin batera etxeko San Nikolas izan zen. Nortindal

Donostiarra kanporatua izan zen patrioaren eraman beharreko pisu gehigarria ez eramateagatik.

Donostiarrak hartu zuten aurre lehen metroetan; zibogara iristean, ordea, mirotzak ziren buruan. Lugañenek lehen txandako Tolosaldeak (05.48) baino bi segundo gutxiago behar izan zituen puntu horretan (05.46), eta berdeek, hamar gehiago.

Bigarren luzean oriotarrak mantendu ziren buruan eta 11.16,60 eginez etxean garaile izan ziren. Atzetik donostiarrak estutu eta Tolosaldeako traineuren denbora segundo batean ondu zuten, 11.25,54. Azkenik, Hondarribiak 11.41,96 egin eta laugarren postuarekin konformatu behar izan zuen.

Emaitza horiei esker, Lugañenek Euskotren Ligako buru jarraitzen du 36 punturekin eta hiru puntura Orio Orialki dago. Hondarribia, aldiz, bosgarren postuan da, 22 punturekin.

## Bosgarren postua

KAE 2 mailan, Gaizka Ormazabal herritarra kide duen Hibaiak Orio kanpina V. bandera eta Portugalete Uri Urena bandera lehiatu zituen. Bietan etxeko traineruek erdietsi zuten garaipena eta Errenteriako eskifaia bosgarren postuan amaitu zuen estropada.

Ligako sailkapen orokorrean, laugarren postua mantentzen du Hibaiak.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### IGERIKETA

#### GETARIA-ZARAUZ ZEHARKALDIA

Getaria - Zarautz Itsas Zeharkaldia eta ZMZ proba lehiatuko dituzte hainbat herritarrek. Larunbata eta igandea. Getarian/Zarautzen.

### ARRAUNA

#### KAE 2

Gaizka Ormazabal herritarrek kide duen Hibaiak 29. Bandera Real Astillero de Guarnizo proban parte hartuko du.

Igandea. 10:30. Astillero, Kantabrian.



### ESKU PILOTA

#### ZUBIETAKO JAIK

Esku Pilota jaialdia izango da Zubietako jaietan. Bigarren neurketan Jon Pello Artetxe herritarra eta Goñi II.ak Urmeneta eta Aranguren izango dituzte aurrez aurre. Sarrerak Bugatin, Irigoien eta Ilargin daude salgai. Edo bestela, 673 38 15 44 telefono zenbakira mezua idatzita.

Igandea. 18:00. Zubietako pilotak, Zubietan.

### PALA

#### SANTA ANA TXAP., FINALA

Santa Ana Pala txapelketako finala eta 3. postua erabakitzeke neurketa jokatuko dira.

Asteazkena 26. 17:30. Loidibarren pilotak.

### ZALDI LASTERKETAK

#### UDAKO DENBORALDIA

Udako denboraldiko jardunaldia jokatuko dute. Larunbata. 11:20. Hipodromoa, Donostian.

## Santa Ana Pala Txapelketako finala hilaren 26an jokatuko da

Artetxe anaiak eta Pagoaga aita-emeak zein San Miguel-Arruti eta Mendizabal-Urruzola bikoteek jokatuko dituzte finalerdiak

## Txintxarri

40. Santa Ana Pala Txapelketa amaitzeko da. Atzo, hilak 20, finalaurrekoak jokatuko zituzten, eta, hilaren 26an, finala lehiatuko dute Loidibarren pilotalekuan.

Finalerdietan bi multzoetako lehen bi sailkatuek neurtu dituzte indarrak. Lehenengo lehian Jon Pello eta Iker Artetxe anaiak Tomas eta Beñat Pagoaga aita-emeen aurka egin zuten. Bigarren, Jago Mendizabal eta Urruzolak Julen San Miguel eta Asier Arrutiren kontra.



lazio finaleko irudia. TXINTXARRI

Aldizkari hau itxi baino lehen ez dugu emaitzarik lortzerik izan.

## Final handia

Hilaren 26an, asteazkenarekin, Santa Ana eguna ospatuko dute gure herrian eta txapelketako azken jardunaldia jokatuko dute.

17:30ak aldera 3. postua erabakitzeke partidak emango dio hasiera jardunaldiari eta ordu bete geroago edo aurreko neurketa amaitzean final handia izango da.

Finalaren aurretik, Erketz Euskal Dantza Taldeak aurrekoa dantzatzeko die jokalariei.

Eta norgehiagokak amaitzean sari banaketa egingo da. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, aurtengo edizioan txapelketan parte hartu duten bikote guztiek izango dute saria.



OSTADAR ATLETISMO (ARTXIBOKO IRUDIA)

## Furundarena, bosgarren

Ostadar Atletismo saileko Naroa Furundarena Erkidegoen arteko Espainiako txapelketan lehiatu zen hilaren 15ean, Iruñean. Herritarrek Euskadiko selekzioarekin parte hartu zuen luzera jauziko proban. Atletik gazteak 12,50 metroko jauziarekin bosgarren postuan amaitu zuen lehiaketa. Euskadi zazpigarren izan zen.

# Herritarrak, ederki itsas zeharkaldietan

Jurgi Sukunza Ondarroako itsas zeharkaldiko podiumera igo da; hirugarren izan da. Ez da lehen postuetan egon den denboraldiko lehen proba izan. Kanariar Handiko Las Canteras Open Water proban ere bigarren sailkatua izan zen junior mailan

## Txintxarri

Uda iristearekin batera itsas zeharkaldi denboraldia ere mar-txan jarri zen. Gipuzkoa aldean Flysh beltza, Itzurun-Arranpla edo San Anton bira lehiatu dituzte. Baina Ondarroa edo Euskal Erkidegotik kanpora ere lehian izan dira herritarrak eta podiumera ere igo dira.

Hilaren 15ean, Bizkaian Ondarroako Itsas zeharkaldian Jurgi Sukunza herritarrak (16 urte ditu) senior mailako hirugarren postua eskuratu zuen, 20.26,95. Aitor Iurramendik (28.38,57) ere parte hartu zuen, baita Buruntzaldea IKTko Manu Santosek (28.20,95) ere.

Egun bat geroago, Getariako San Anton Bira proba jokatu zuten. Bertan Sheila Blazquez (48.43) herritarrak zein Buruntzaldea IKTko Juan Vicente Martin (35.32), Asier Gorostegi (39.01), Igor Amantegi (38.19), Laura Igea (41.34) eta Manu Santos (46.44) kideek egin zuten igerian.



Jurgi Sukunza (eskubian), Ondarroako itsas zeharkaldiko podiumean. K. GOMEZ

Itzurun-Arranpla zeharkaldian ere izan ziren herritarrak lehian, hilaren 8an. Zumaiako lehiaketan ibilbide ezberdinak izan ziren eta hiru kilometroko probari aurre egin zioten Jurgi Sukunzak (38.38) eta Garikoitz Lopetegik

(42.09), baita Buruntzaldea IKTko Juan Vicente Martinek (43.46) ere.

**Kanaria Uharteetan, podiumean** Euskal Erkidegoko mugetatik bestalde ere itsas zeharkaldietan



Ibon Elola eta Iñaki Garcia, txapelketako atseden batean. BURUNTZALDEA IKT

## Elola eta Garcia, markak ontzen

Hilaren 13tik 16ra, Alebin Mailako Espainiako txapelketa lehiatu zuten, Madrilen. Buruntzaldea IKTko bi ordezkari izan ziren bertan: Ibon Elola eta Iñaki Garcia. Bientzat Espainiako Txapelketa batean zein igerileku luzeko lehia batean estreinako aldian izan zen. Hala ere, ederki moldatu ziren eta euren markak ondu zituzten proba guztietan.

Biek 50 m. libre probako kanporaketa lehiatu zuten serie berean. Elolak 27,88 egin zuen eta Garciak, aldiz, 27,01. Bientzat igerileku luzeko marka pertsonal berria eta Garciarentzat 14 urteko taldeko errekorra ere izan zen; aurrez Iñigo Ibarburuk ezarria zuen 27,03koa hautsi zuen. Horrez gain, Garciak 100 m. (01.06,80) eta 200 m. bizkar (02.28,68) ere lehiatu zituen eta 100 metroko lehian erdiko pasean ere 32,23 marka ederra egin zuen.

parte hartu dute herritarrek eta lehen postuetan izan dira. Sukunza anaia-arrebek –Aimar, Jurgi eta Maddi–, esate baterako, Kanaria Handian antolatutako Las Canteras Open Water proban egin zuten igeri, ekainaren 24an. Jur-

gik seigarren postuan amaitu zuten lehia eta junior mailako bigarren postua eskuratu zuen. Aimarrek absolutu mailako irabazle izan zen; orokorreko, hamahirugarren eta Maddi, aldiz, absolutu mailako bosgarren.

## Sari handietarako hautagaiak ezagutzera eman dituzte

'Lovely Diamond' behorak Viura Hotela saria irabazi du eta 'Souvenir d'Ecajeul'-ek moxalen saria eraman du

## Txintxarri

Donostiako Hipodromoan Uda-ko sari nagusietarako aurreko probak hasi dira. Hilaren 16ko jardunaldian, abuztuak Maria Cristina sariko hautagaiak ikusi ahal izan ziren lehian.

Viura hotela sari nagusian behorrek eta jockeyek euren onena eman zuten eta guztien artean, *Lovely Diamond* eta Alejandro Gutierrez Val nabarmendu ziren. Hasieratik bere nagusitasuna erakutsi zuen bikoak eta garaipena erraz erdietsi zuten.



Lovely Diamond, lehian. D. ARGINDAR

Arratsalderi hasiera emateko El Molino del Lobo saria jokatu zuten eta *Isaba* izan zen garaile. Ricardo Sousak gidatuta berak

baino esperientzia gehiago duten behorak aurreratu zituen azken zuzengunean eta helmugara lehen iritsi zen.

Jarraian, European Breeder's Fund Saria jokatu zen. *Souvenir d'Ecajeul* nagusi izan zen Fabrice Veron gainean zuela. Krite-riumerako hautagai izan daitekeela erakutsi zuen.

Digitalak Sarian jardunaldiko ezustekoa izan zen; aurreikuspen guztien gainetik, *Marchelo*-Carlos Andres Loaiza bikoak eraman zuten garaikurra.

Laugarren proban, Garda Seguridad Saria zegoen jokoan eta *Nyala*-k eta Nicolas de Julianek eskuratu zuten arazorik gabe.

Hurrengo hitzorduan egun eta ordu aldaketa izango da Hipodromoan; hilaren 22an, larunbatean lehiatuko dute, 11:20ean hasita.



CAJA RURAL ALEA

## Carbayeda, Zamorako itzulian

Beñat Carbayeda herritarra (irudian, ezkerreko bigarrena) Zamorako itzulian lehiatu da Caja Rural-Alea taldean. Herritarra lehen postuetan izan ez den arren, bere taldekideentzat egon da lanean. Perilla de Castro eta Carbajales de Alba arteko hirugarren etapan izan zuen saria talde nafarrak; Jan Castellonek irabazi eta lidergoa hartu zuen. Tamalez ezin izan zuen maillot horia mantendu.

## KOMIKIA



## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 21	GIL
LARUNBATA, 22	ACHA-ORBEA
IGANDEA, 23	ACHA-ORBEA
ASTELEHENA, 24	URBISTONDO
ASTEARTEA, 25	ACHA-ORBEA
ASTEAZKENA, 26	ACHA-ORBEA
OSTEGUNA, 27	DE ORUE

**Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00**  
 DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08  
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67  
 GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00**  
 K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943-33 60 77

**'URTE OSOKO GUARDIAK'**  
 Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.

## TELEFONOAK

### UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

### LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZTA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112


## OHARRAK

### Garraio zerbitzua mugikortasun urria duten pertsonentzat


Lasarte-Oriako Gurutze Gorriak jakinarazi du garraio zerbitzua emango diela mugikortasun urria duten pertsonen. Erabili nahi dutenek larunbata baino lehen eskatu beharko dute, telefono zenbaki honetara deituta: 678 40 76 59. 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara hots egin dezakete.

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 21




Larunbata, 22




Igandea, 23




Astelehena, 24



Asteartea, 25



Asteazkena, 26



Osteguna, 27



### Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta

#### Internet

- [txintxarri.eus/zorionagurrak](http://txintxarri.eus/zorionagurrak).
  - Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
  - Bidali zorion agurra formularioz.
  - Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.
- Posta elektronikoa**
- Mezua bidali [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

## SUDOKUA

		9				6		8
6			9	4	5		3	
		1		7		5		
8	7		4				2	
	3		1	2				5
	1			8	9			
				6	2	4		
	8	3						6
5			3				9	

## AZOKA TXIKIA

## ETXEBIZITZA

## ERRENTAN EMAN

Garaje marra alokatzen dut Urdaneta eraikinean, beheko solairuan. Sarbide eroso. Harremanetarako zenbakia, 620 18 87 87.

Bi neska gazte gara eta pisukide bila gabiltza. Etxea Zabaleta auzoan dago, 70 m2 ditu eta alokairua hilabetean 200 euro dira (gastuak aparte). Interesa baduzu deitu mesedez telefono honetara: 663 93 51 76 (Irati)

## LANA

## ESKAITZA

Zientzia arloak, ingelesa zein pintura eta manualitateak gaiak eskainiko dituzten irakasleak behar dira ikasturte osorako. Interesatuak bidali CVa info@zitek-akademia.com helbidera.

Jomada erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644 11 61 22.

## ESKARIA

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketa...) FP-2 mekantzatua egina dut. Zubietan bizi naiz. Harremanetarako zenbakia, 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. Harremanetarako zenbakia, 602 082 583.

## AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

**Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitetz gurekin harremanetan**

txintxarri@ttakun.eus  
943-37 14 48  
688 68 35 10

## ESKELA


**ESKELAK JARTZEKO**

**TEL: 943-37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioon

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan 943-37 14 48**

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

# txintxarri

*Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz*



[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

txintxarri

[WWW.TXINTXARRI.EUS](http://WWW.TXINTXARRI.EUS)

## Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

## Administratzailea

Nerea Garziarena.

## Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

## Publizitatea

Irati Zatarain.

## Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexu Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

## Banatzaileak:

Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas, Iñigo Garcia, Nikola Iraola eta Xuban Urdalletea.

## Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

## Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

## Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@ttakun.eus

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.  
Lege Gordailua:  
SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

## OSTIRALA 21

### LASARTE-ORIA Antzerkia

*Nexo* magia ikuskizuna Jon Zabal magoaren eskutik. Kale Antzerkia Bultzatuz zikloaren barruko emanaldia izango da. Sarrera, doan.

*Okendo plaza, 18:00etan.*

## LARUNBATA 22

### LASARTE-ORIA Azoka

Usurbil Museo Irekia bisita gidatua iragarri du 650 Usurbil Bizi taldeak. Bertaratu nahi dutenek aurrez izena eman beharko dutela iragarri dute antolatzaileek; honako atarian egin daiteke inskripzioa: *650usurbilbizi.eus*.

*Sutegi Udal Liburutegitik abiatuta, 12:00etatik aurrera.*

## IGANDEA 23

### LASARTE-ORIA Azoka

38. Santa Ana Artisau Azoka egingo dute. Honako ordutegia izango duela iragarri dute antolatzaileek: 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

*Okendo plaza eta inguruak, 10:00etatik aurrera.*

### ZUBIETA Kirola

Zubietako Santio jaien aurrekari gisa, esku pilota txapelketa antolatu du Zubietako Jai Batzordeak. Bi partida jokatu dituzte.

Lehenengoan, Larrarte eta Erasun bikotea arituko da, Mendizabal eta Arrillagarren aurka. Bigarrenean, berriz, Urmeneta eta Aranguren, Goñi II.ena eta Artetxe lehiatuko dira. Sarrera erostea ezinbestekoa dela ohartarazi dute antolatzaileek, eta horiek, Bugatin, Irigoien edota Ilargin eros daitezke.

*Zubietako pilotalekua, 18:00etan.*

## ASTELEHENA 24

### ZUBIETA Jaiak

Santio Jaietan murgilduko dira zubietarrak, eta horretarako, honako egitaraua iragarri dute antolatzaileek:



### LASARTE-ORIA Ospakizuna

Usadioari jarraiki, Santa Ana eguna ospatuko du Lasarte-Oriak datorren asteazkenean, hilak 26; egitarau zabal bezain erakargarria prestatu du horretarako Ttakun Kultur Elkarteak, udalarekin elkarlanean. Zaindariaren omenezko mezarekin ekingo diote fededunek egunari, eta luntxa egingo dute gero. Erketz EDTren dantza izango da ostean, Santa Ana karkaban. Arratsaldean, berriz, desfilea egingo dute herrian barrena, eta ospakizuna amaitzeko, parodia taularatuko dute. Behean kontsulta ditzakezue jarduera bakoitzaren ordu eta kokaleku zehatzak.

*Uztailak 26, asteazkena, herriko zenbait lekutan, 11:00etatik aurrera.*

**18:00etan**, jaien hasiera, txupinazoa eta buruhandiak. Jarraian, txoznen irekiera Elene eta Maddik girotuta.

**20:00etan**, bingoa.

**21:00etan**, herri afaria, Zubietako Pilota Elkartearen eskutik. Ondoren, Laiotz taldearekin dantzaldia.

*Zubietak, 18:00etatik aurrera.*

## ASTEARTEA 25

### ZUBIETA Jaiak

Santio Jaietan murgilduko dira zubietarrak, eta horretarako, honako egitaraua iragarri dute antolatzaileek:

**09:00etan**, esnadeia, Donostiako Txistulari Bandaren eskutik.

**11:00etan**, Meza Nagusia, zaindariaren omenez. Ondoren, hamaiketakoa, Joko Garbi elkartearen eskutik eta Soka Dantza.

**18:00etan**, herri kirolak: Lur Errekondo eta Hodei Izeta harria jasotzen, eta Pentatloiean, Andoni eta Jakes Izeta.

**19:30ean**, bertsolariak: Andoni Egaña, Oihana Iguaran, Iker Zubeldia eta Iñigo Mantzisor

Mantxi. Gai jartzailea: Zortzitan Bertso Eskola.

*Zubietak, 09:00etatik aurrera.*

## ASTEAZKENA 26

### LASARTE-ORIA Ospakizuna

Santa Ana Eguna opatuko dute lasarteoritarrek. Hau da Ttakun Kultur Elkarteak, udalarekin elkarlanean prestatu duen egitaraua:

**11:00etan**, meza Ama Brigitarren komentuan. Ondoren, luntxa.

**12:00etan**, Erketz EDTren dantza, Santa Ana karkaban.

**18:30ean**, desfilea herrian barrena.

**20:00etan**, Santa Ana pardoria, Okendo plazan.

*Zubietak, 09:00etatik aurrera.*

## OSTIRALA 28

### LASARTE-ORIA Dantza

XIX. Dantza Zirkuituaren barruan *Otempodiz* dantza ikuskizuna egingo du Ertza antzerki eta dantza taldeak. Sarrera, doan.

*Okendo plaza, 19:00etan.*

txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,  
doan eta euskaraz



**Zure iragarkia  
jarri nahi duzu?  
Jar zaitez gurekin  
harremanetan!**

**Deskontu  
bereziak  
herrikoentzat!**

**ESKATU TARIFAK:**  
publizitatea@ttakun.eus

646 82 44 66 

# Santa Ana Pintxoa

**Uztailak 23**

**HIRU  
ALDETA  
Taberna**

Pablo  
Muñozabal  
kalea, 2

**Café  
Bar  
BUENETXEA**

Pablo  
Muñozabal  
kalea, 2

**PLAN B  
Kafetegia**

Hipodromo  
Etorbidea, 15

**HERRIKO  
ETXEA**

Kalbario  
Kalea, 7

**ARIMA  
Gastro  
taberna**

Osina  
Kalea, 4  
(Zabaleta)

**Lasarte - Orio 2023**



## uztailak 26

**11:00etan**  
Santa Ana eguneko meza, Ama Brigitarren komentuan. Ostean, luntxa.

**12:00etan,**  
Erketz EDTren dantza, Santa Ana karkaban.

**18:30ean,**  
Desfilea herrian barrena

**20:00etan,**  
Santa Ana parodia.  
Okendo plazan\*

# SANTA ANA 2023

\* Eguraldi txarra eginez gero Manuel Lekuona Kultur Etxean egingo da.